

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2011ko azaroaren 10a. VIII. urtea. 2.305. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldean bildutako diruari esker eskola bat eraiki dute Saharan

Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek Saharak azken 36 urteetan bizi duen egoera salatu dute; egindako ikastetxeari Euskal Herria izena jarri diote

Elkarteek urriaren 23an Rabunin herrian izandako hiru kooperanteen bahiketa gaitzetsi dute, eta senide eta lagunei «erabateko elkartasuna» adierazi diete **o5**



Elkarretaratzea egin zuten herenegun arratsaldean Sahararen egoera salatzen. M.UGARTEMENDIA

## Gainditzen elkarteak bigarren aldiz antolatu du film laburren jaialdia

Guztira zeinu hizkuntzan egindako sei herrialdetako hemeretzi film ikusi ahalko dira, larunbatean, Tolosako Leidor aretoan **o3**

**Urko Arozena**  
Musika irakaslea

«Entrenamendu mentalak berezko baliabideak erabiltzeko balio du»

Entrenamendu mentalaren ikastaroak eskainiko ditu etzi eta hilaren 19an, Leitzan

**Elkarrizketa o7**

## Tolosaldeko alkateek osasun publikoa aldarrikatzeko deia egin dute

Eskualdeko 28 alkateak, eta Andoain eta Legorretakoak, TOPAk larunbatean Tolosan egingo duten manifestaziora atxiki dira **o2**



30 alkateek eskainitako agerraldia herenegun, Tolosan. I.URKIZU



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Gertu...**

VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BEILATOKI-BULABEA

**24 H..**

943 694 873



30 alkate eta udal ordezkariak Tolosako udaletxeko batzar aretoan elkartu ziren. I. URKIZU

## 30 alkatek bat egin dute TOPAk etzirako deitu duen manifestazioarekin

Besteak beste, eskualdeko herritarrek ez dutela «bigarren mailakoak» izan behar aldarrikatu dute

### Itzea Urkizu

Tolosaldeko alkate guztiek, Legorretakoarekin eta Andoaingoarekin bat eginik, agerraldia egin zuten pasa den asteartean, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) plataformak datorren larunbatean, 12:00etan Trianguloa plazan, deitu duen manifestazioarekin bat egingo dutela azaltzeko.

Orain dela hilabete batzuk ere bildu ziren 30 alkateak, TOPAren aldarriekin bat egiteko. Besteak beste, eskualdean «Osakidetzak ematen duen osasun zerbitzua salatu nahi» dute.

Agerraldian, herritarrek aipatu hasi ziren alkateen ordezkariak; izan ere, «eskualde honetako herritarrek osasun zerbitzu publiko baten aldeko aldarria» egin dutela nabarmendu zuten, plataformak jasotako 16.000 sinatu

durak aipatu. Bide beretik, azken hilabeteotako, «manifestaldi jendetsuak» ere gogora ekarri zituzten.

### «Osakidetzaren entzongor»

Tolosaldeko osasun zerbitzuaren inguruan sortutako auzian, 30 alkateak Osakidetzari begira jarri ziren: «Entzongor egiten dio eskualdeko herritarren oihu argiari, entzongor zerbitzua jasoko duten herritarren eskariari». Horrela beraz, beste behin ere, «Osakidetzak erakutsitako jarraitia» salatu zuten Tolosako udaletxeko batzar aretoan elkartu ziren alkateak. Asuncion klinika eta Osasun saila sinatzera doazen hitzarmen berria erabaki antidemokratikotzat dute eskualdeko nahiz Legorretako eta Andoaingo udal ordezkariak, eta «herritarren eta erakundeetako ordezkarien gehiengoaren aurka erabakia da».

2012ko urtarriletik aurrera martxan jarriko da, Tolosalderako prestatutako osasun sistema berria. Eskualdean ospitale publikoaren faltari, krisi garaian, irtenbide bat emateko modu bat dela azaldu izan dute Asuncione eta osasun saileko ordezkariak. 30 alkateek, ordea, «krisia argudio moduan erabili nahi» dutela diote: «Euskal Autonomia Erkidegoan osasun zerbitzuaren in-

guruko esperimentu bat egin nahi dutela iruditzen zaigu. Hau beste eskualdeetara zabaldu aurretiko frogak dela deritzogu».

### Hitzarmena ez gauzatzeko

Agerraldian bildu ziren alkateak, TOPAren aldarriekin bat egiteaz gain, eskualdeko herritarrek «bigarren mailakoak izatea» ez dutela nahi azaldu zuten. Osakidetzak Tolosaldeko biztanleekiko zor historiko bat duela uste dute, eta zor hori kitatzea nahi dute: «Eta ez egin nahi duten moduan, areagotzea».

Horrela beraz, osasun arduradunei mezu bat helarazi nahi izan zieten eskualdeko udal ordezkariak: «Asuncion klinikarekin sinatu beharreko hitzarmena ez gauzatzeko eskatzen diegu; espezialitateak Asuncion klinikaren esku ez uztea».

Ibai Iriarte Tolosako alkateak azaldu zuenez, Osasun saileko lurraldeko ordezkaria den Jesus Mari Begiristainekin hitz egin zuen agerraldia baino egun bat lehenago, eta Asuncion klinikarekin sinatzekoak ziren hitzarmena, arazo batzuk medio, ez omen dute sinatu. Hala eta guztiz ere, «akordioa sinatu egingo dutela azaldu zidan argi eta garbi, eta atzera bueltarik ez duela izango», dio Ibai Iriartek.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Mahai txotxongilo tailerra izango da Topic-en

Heldu eta gazteei zuzenduriko ikastaroa da, eta azaroaren 25etik 27ra bitarte burutuko dute

### I. Urkizu

Arketal frantziar taldearen esku-tik, mahai txotxongiloen tailerra izango da Topic-en, panpinaren mugimenduari garrantzia berezia emanez.

Heldu eta gazteei zuzenduriko ikastaro honek, lau orduko hiru saio izango ditu; hamabi orduko ikastaroa izango da, beraz.

Txotxongiloa panpina biziduna den aldetik, mugimendua da bizitasuna ematen dion ezaugarria. Hain zuzen ere, txotxongiloaren alderdi hori, bereziki landuko dute Arketal taldeak eskainiko duen tailer honetan.

Besteak beste, ikasleek mahai txotxongiloak egiten ikasiko dute, eta oinarri bezala panpinak bi gailuren bidez mugitzen direla

irakatsiko diete arduradunek. Gailu bat buruaren atzeko aldean izaten dute mahai txotxongiloek, eta bestea berriz, soineak. Panpinaren besoak txotxongilolariak mugitzen ditu. Horrela beraz, teknika hau kontuan hartuz, txotxongilo bana eraikiko du ikasle bakoitzak.

Lehenik eta behin, panpinaren ezaugarriak pentsatuko dituzte, honen arabera materialak eta lanabesak aurkezteko. Gero, artikulazio teknikak landuko dituzte. Panpinaren gorputza lotuko dute, eta azkenik kolorea eta apaindurak jarriko dizkiete. Ikastaroa txotxongilo mugitzeko jarraibideekin amaituko da.

Ikastaroa azaroaren 25etik 27ra bitarte izango da Topic-en. Lehenengo egunean, 18:00etatik 21:00etara bitarte ariko dira; azaroaren 26 eta 27an, berriz, 09:30etik 14:00etara bitarteko saioak burutuko dituzte. Gehienez ere hamar lagunek parte hartu ahal izango dute, eta izena ematerakoan 50 euro ordaindu beharko dira.

## Donostiako Zinemaldiko filma Leidor aretoan

Gaur jatorrizko bertsioan izango da pelikula bat, eta asteburuan, heldu eta haurrentzako zinea

### I. Urkizu

Donostiako zinemaldia estreinatzen zen *No habrá paz para los malvados* filma eskainiko dute, datorren asteburuan, Leidor aretoan.

Gaur, ostegunero bezala, zine foruma izango da jatorrizko ber-

tsioan; *Tideland* pelikula izango da, 19:15ean eta 21:45ean.

Larunbatean, azaroak 12, zine saio bakarra izango da, 22:30ean. Jose Coronado protagonista den *No habrá paz para los malvados* eskainiko dute.

Igandean, berriz, 17:00etan, gaztetxoenei zuzendutako pelikula izango da Leidorren: *Phineas y Ferb*. 19:30etan eta 22:00etan, berriz, *No habrá paz para los malvados* izango da berriro.

Astelehenean, ikuslearen egunean, *No habrá paz para los malvados* eskainiko dute azkeneko.

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdialdean, altzariz guztiz hornitutako etxebizitza alokatzen da; bi logela, komuna eta egongela ditu eta bizitzera sartzeko moduan dago. Hileko kuota 600 eurokoa da. Interesatuak, deitu 619 645256 telefono zenbakira.

**Beti Alai**  
jatekoa

Garaian garaiko janariak  
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Zeinu hizkuntzan egindako hemeretzki film labor ikusgai nazioarteko jaialdian

Gaunditzen pertsona gorren elkartek bigarren aldiz antolatuta du ekimena; egun nagusia larunbatean da

Imanol Garcia

Gaunditzen Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren elkartek zeinu hizkuntzan egindako Nazioarteko II. Film Laborren Jaialdia antolatuta du Tolosan. Bihar eta etzi hainbat ekitaldi prestatu dituzte, nahiz eta egun handia bigarrenaren izan. Jaialdiaren barruan, sei naziotako hemeretzki film labor ikuszeko aukera egongo da Leidor aretoan. Luzeenak 30 minutuko iraupena izango du, eta laborrenak sei minutu eskasakoa.

Bi saiotan banatu dute jaialdia, eta arratsaldekoa amaitzen denean, sari banaketa ekitaldi egingo dute. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte jaialdira, zeinu hizkuntzaren erabiltzaile izan edo ez, izan ere, filmak azpitu-tulaturik egongo dira.

Julian Rodriguez elkarteko kide eta jaialdiaren antolatzaileak esan duenez, «nabaritzen da jendeak gogoa duela ekitaldiak hasteko. Posta elektronikoko asko eta dei asko jaso ditugu, ilusio handiz, informazio gehiago eskatzeko. Jendeak ere galdetu dit egunotan, kalean, jaialdiari buruz». Lan handia egin dute Gaunditzen elkartetik jaialdia bigarren urtez antolatzeko, eta bere kideei hori nabaritzen zaie.

Aste honetan egin dute jaialdiaren aurkezpena, Rodriguezek eta Alberto Etxeberria elkarteko lehendakariak. «Larunbatean esku asko egongo dira mugitzen Tolosan», esan dute, pozik.

Film laborrak beraien artean lehiatuko dira sariak irabazteko. Dagoeneko epaimahaiak ikusi dituzte film laborrak eta badute gutxi gorabeherako epaia. Hala ere, Rodriguezek esan duenez, «eztabaida handia dute epaimahai-

koek, pelikulak kalitate handiak direlako». Publikoak bere saria emateko aukera izango du.

## Erakunde publikoekin kritikoa

Film laborren jaialdia Gaunditzen elkarteko Julian Rodriguezek ekarri zuen Tolosara. Duela lau urte Europan zehar bidaian zela, zeinu hizkuntzako jaialdi batean egon zen, eta ideia asko gusatu zitzaionez, bere bizilekuan praktikan jartzea erabaki zuen.

Ekimenak jendearen aldetik erantzun «ona» izan zuen iaz. Rodriguezen esanetan, «guztira 350 ikusle etorri ziren». Aurten 500era iritsi nahi dute. Sarrerak [www.gaunditzen.org](http://www.gaunditzen.org) webgunean eskuratu daitezke, eta Leidorreko lehiatilan jaialdia hasi aurretik.

Erakunde publikoen babes, ordea, ez da horrenbestekoa izan jaialdiaren antolatzailearen esanetan: «Diru laguntzak kendu dizkigute, eta oraindik ez dakit ongi hori zergatik izan den. Foru Aldundiarekin eta udalarekin hitz egiten egon gara, eta erantzunaren zain gaude. Jaurilaritzak berriz, laguntza kendu digu. Zergatik? Ez dakit».



Julian Rodriguez eta Alberto Etxeberria, jaialdiaren aurkezpenaren. I. GARCIA

## ↓ Egitaraua

### AZAROA 11, OSTIRALA

- **17:30.** Partaideei ongietorria Oria hotelean.
- **18:30-20:30.** Pertsona gor, itsu eta gor-itsuen inguruan zeinu hizkuntzan egindako filma, Topic aretoan.

- **21:00.** Afaria jubilatuen etxean.

### AZAROA 12, SABADO

- **09:00.** Gosaria jubilatuen etxean.
- **09:30.** Tolosan barrena ibilbi-

dea: Euskal Herria plaza, Berdura plaza, Santa Maria eliza, udaletxea eta Zerkausi.

- **10:30-13:30 eta 16:00-19:00.** Zeinu hizkuntzan egindako Nazioarteko II. go Film Laborren Jaialdia.
- **21:00.** Sagardotegi afaria.

## ↓ Film Laborren Jaialdiko parte hartzaileak

- **'Corazon de arlequin'**. 10'. Espainia.
- **'Otra vida'**. 18'. Espainia.
- **'Quiero bici'**. 6'. Espainia.
- **'Fairytale of London town'**. 27'. Ingalaterra.
- **'I tempi sono cambiati'**. 6'. Italia.

- **'El ángel'**. 14'. Espainia.
- **'Una mujer'**. 20'. Espainia.
- **'Rory Gets Fit'**. 6'. Ingalaterra.
- **'Avenida de las rosas con espigas'**. 26'. Espainia.
- **'¿Qué teme el lobo ferroz?'**. 10'. Espainia.
- **'Free Wheel'**. 7'. Espainia.

- **'The eye life'**. 7'. Espainia.
- **'Ispilua'**. 6'. Euskal Herria.
- **'Codice 1'**. 17'. Italia.
- **'Amour Brisé'**. 12'. Kongo.
- **'Wild Dogs'**. 30'. Holanda.
- **'El legado'**. 14'. Euskal Herria.
- **'Lucia'**. 25'. Espainia.
- **'Extraño'**. 19'. Espainia.

## → Laborrak

### Ipuin kontaketa saioa gaur, udal liburutegian

**IBARRA** » Ipuin kontaketa saioa izango da gaur, 17:30ean, Benito Izagirre kultur etxean. Ibarra-ko udal liburutegiak antolatutako saioa Ines Bengoak zuzenduko du eta 3-5 urteko haurrei zuzenduta dago.

### Uzturpe ikastolaren ohiko batzarra, hilaren 24an

**IBARRA** » Urteko ohiko batzarra egingo du Uzturpe ikastolak hilaren 24an, 19:00etan (lehen deialdia 18:30ean) Ikastolako areto nagusian. Errektore kontseiluko lehendakariaren aurkezpena, errektore kontseilua berrieta, 2010-2011ko ekitaldiko urteko kontuen kudeaketa eta 2011-2012ko aurrekontua aztertzea, 2011-2016 estrategia plana edota batzordeen inguruan hitz egingo dute. Errektore kontseiluak dei egiten die guraso eta langileei bertan parte hartzera.

### Uholdeen kaltetuekin bilera, gaur arratsaldean

**LEABURU** » Uholdeen kaltetuekin bilera egingo dute gaur, udaleko ordezkariak. 19:30ean izango da, udaletxeko batzar aretoan.

### Udalaren jendaurreko lehen balantzea, gaur

**IBARRA** » Udalak jendaurreko lehen balantzea egingo du, gaur, kultur etxean, 19:00etan hasita. Herritar oro animatzen du bertan parte hartzera. Bestalde, udalak eskerrak eman nahi dizkie iragan asteburuan uholdeek sortutako arazoekin laguntzen egon ziren herritarrei.



Udaleko ordezkariak. HITZA



hitzak hitza

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Azaroak 12 • Larunbata  
20:00etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Assignia Manresa  
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak



# Mikel Garmendia eta Manex Castro epaituko dituzte gaur, Auzitegi Nazionalean

Fiskalak 25 urteko espetxe zigorra eskatuko du Castrorentzat, eta zortzi Garmendiarentzat



Manex Castro. HITZA



Mikel Garmendia. A. IMAZ

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Mikel Garmendia eta Manex Castro billabonatarren aurkako epaiketa gaur goizean hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalean. PSE-EE alderdiak Lazkaon duen egoitzaren aurkako eraso leporatzen die Castrori, eta fiskalak 25 urteko espetxe zigorra eskatu du beraren aurka. Mikel Garmendia-

ri erakunde armatuarekin kolaboratzea leporatuko dio fiskalak, 8 urteko espetxe zigorra eskatuko duen bitartean.

**Tortura salaketa**

Manex Castro 2009ko martxoaren 1ean atxilotu zuen Ertzaintzak, Villabonan. Inkomunikazio al-dian torturak jasan zituela salatatu

zuen billabonatarrek. Castro atxilotu eta bi egunetara, Mikel Garmendia atxilotu zuten. 2010eko ekainaren 8an, Garmendia aske geratu zen 15.000 euroko bermea ordaindu ondoren.

Madrilera hainbat herritar joango dira gaur, billabonatarrei babesa azaltzeko eta epaiketan lekuko bezala deklaratzeko.

**Irudia** > Villabona-Zizurkil



## IKASTOLATIK EKOGUNERA IRTEERA

Iragan azaroaren 3an, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleak Zabalegiko Natur Eskolara joan ziren. Egun osoko irteera izan zen eta oso ondo pasa zutela azaldu dute ikastolako arduradunek. Zabale-

giko ekogunean, baratzeak, negutegiak eta fruta-arbolak ikusi zituzten, eta oro har, lorazaintzarekin loturiko jarduerak egin zituzten. Aldi berean, natura eta nekazaritza baloratzen eta errespetatzen ikasi zutela azaldu dute ikastolatik. HITZA

## Intxurrekoek Alegian, Ikaztegieta eta Altzon jokatu dituzte partidak

**Erredakzioa**

Intxurreko pilotariak bihar eta etzi, hilaren 11n eta 12an, partidak jokatu dituzte Alegian, Ikaztegieta eta Altzon. Paleta goman, binaka eta banaka jokatu dira lehiak.

Alegian hiru partidak jokatu dira bihar, 19:30etik aurrera. Ikaztegieta ere lehiak bihar izango dira, 19:00etatik aurrera. Kasu honetan, bost partidak jokatu dira. Altzoko lau partidak etzi, hilaren 12an, jokatu dira. Lehiak 16:15ean hasiko dira.

**↓ Emaitzak**

**Joan den asteburuko partidak**

Zabala-Luzuriaga (Intxurre)	22
Gazteleku	13
Larea (Intxurre)	22
Zazpi Iturri	11
Urretabizkaia-Esnaola (Intxurre)	22
Bergara	15
Goikoetxea-Garin (Intxurre)	22
Antigua	13
Nazabal-Mujika (Intxurre)	20
Aurrera Saiaz	22
Murua (Intxurre 2)	0
Atxurbide 2	2
Murua (Intxurre 1)	2
Aniztasuna 3	0
Arruti (Intxurre 3)	2
Lapke 1	0
Aizpitarte (Intxurre 2)	1
Txapagain 1	2
Lapke 2	0
Oiarbide (Intxurre 4)	2
Aniztasuna 1	2
Zubeldia (Intxurre 5)	0
Su Berri 1	16
Gallurralde-Senperena (Intxurre 1)	22
Zazpi Iturri 2	2
Mozo (Intxurre 4)	1
Zazpi Iturri 3	2
Jon Luzuriaga (Intxurre 5)	1
Zazpi Iturri 1	2
Otegi (Intxurre 1)	0
Ziotza 1	0
Altuna (Intxurre 7)	2
Ziotza 3	1
Murua (Intxurre 6)	2

**→ Laburrak**

**Argazki lehiaketan herritarren bozken txanda**

**ANOETA** > Argazki lehiaketan bozka emateko epea gaur, hilaren 10ean, amaituko da. 2012ko egutegia osatzeko antolatuta dute lehiaketa. Argazkiak kiroldegian daude ikusgai, baita [www.anoeta.net](http://www.anoeta.net) helbidean ere. Herritarrek botoa emateko bi aukera izango dituzte, bata kiroldegian eta bestea webgunearen bidez. Argazki bakoitzak zenbaki bat duenez, hau kon-tuan hartuta, herritarrek irudi ederrenak batetik bestera sailkatu beharko dituzte.

**Gazteen Eguna ospatuko dute Sanmartinetan**

**AMASA** > Sanmartinak atzo arratsaldean lehertu ziren Amasan, Martina Sorgina iritsi zenean. Gaur Gazteen Eguna ospatuko dute. 06:00etan gosaria egingo dute trikitilari eta dultzaineroekin, Ongi Etorri tabernan. 14:30ean, Uxo Toki elkartera joango dira bazkaltzera. 16:30ean, sokadantza eta aureskua egingo dituzte plazan. Ondoren, erromeriaren txanda izango da. 21:00etan, azkenik, gazteen afaria egingo dute Iturri-Goxon.

**Aizkardiren Argazki Rallya igandean izango da**

**VILLABONA** > Aizkardi Mendi Taldeak antolatu duen 4. Argazki Rallya hilaren 13an, igandean, izango da. Parte hartu nahi dutenek egunean izena emateko aukera dohainik izango dute, 09:00etan Aizkardi Aretoan.

**Gaztain jatea egingo dute San Millan Egunean**

**ZIZURKIL** > Zizurkilen azarora begira antolatu dituzten ekitaldien barruan, hilaren 12an, larunbatean, San Millan Eguna agertzen da. Egun horretan gaztain afaria egingo dute Zizurkil Goian, 21:00ak inguruan.

# Sanmartinak bizi eta gozatu!

**AMASA-VILLABONAKO UDALA**

# Sahararren eskubideen alde borrokan jarraitzen dute

Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek urrian bahitutako hiru kooperanteak «aske uzteko» eskatu dute

Eskualdeko laguntzari esker eskola bat jarri da martxan, Mauritaniako mugatik gertu

## M. Ugartemendia

Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek, Saharako herriak azkeneko 36 urteetan bizi duen egoera salatuz, bi eskaera egin dituzte. Alde batetik, «Espainiar Estatuko agintariek, duela 36 urte sinaturiko Madrilgo Akordioaren berehalako baliogabetzea». Eta, bestetik, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuaren «burutu duten eta burutzen ari diren genozidioaren berehalako amaiera» burutzea.

Esan bezala, eskaera hauek Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek egin zituzten astearte iluntzen egindako elkarretaratze batean.

Azaroa hil beltza da sahararentzat. 1975eko azaroaren 6an marrokiarrek Martxa berdea egin zuten herri sahararren aurka, Amerikako Estatu Batuen laguntzaz; ondorioz, errefuxiatuen kanpamentuetan bizitzera behartu zituzten sahararrak. Urte bereko azaroaren 14an Espainia Mauritania eta Marokok Hirukoen Sinadura egin zuten. Hitzarmen horren bitartez, «gubernu sahararrak herri sahararra 'saldu' zuen eta marrokiar erregimenaren eskuetan utzi zuen», nazioarteak herri sahararrak erreferendum bat egiteko gomendatu bazuen ere.

Urte hauetan bizitako egoeraren ondorioz, duela urte bete herri sahararra modu baketsuan manifestazio bat egin zuen. Bertan «euren nazioan pertsona bezala bizitzeko eskubideen alde» aritu ziren. Manifestazio horien

ondorioz «hildakoak, torturatuak, atxilotetak, epaiketa militarrik...» izan ziren, eta gaur egun aurrera jarraitzen dute.

Guzti horrez gain, pasa den urriaren 23an Rabunin hiru kooperante bahitu zituzten. Oraindik, inork ez du beregain hartu bahiketara.

Gainera, honekin Espainiako Gobernu kanpo ministeritzaren arduradunak eta Marrokiar Gobernu kanpo ministeritzaren arduradunak errefuxiatu kanpamentuetako «segurtasuna dudatan» jarri dute.

## Eskaerak

Gertaera guzti hauen aurrean Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek zenbait salaketa eta eskaera egin dituzte.

Batetik, Rosella Urru, herrien garapenerako Italiano batzordeko kideak, Ainhoa Fernandez, Extremadurako Saharar Herriaren Lagunen elkarteko kideak eta Enric Gonyalons, Mundu Bat gobernu kanpoko erakundeko kideak «Tindoufeko (Aljeria) saharar errefuxiatuen kanpamentuetan jasandako eraso eta bahiketara» gaitzesten dute. Era berean, senitarteko eta lagunei «erabateko elkartasuna» adierazi nahi diete eta «berehala eta baldintzarik gabe aske utz ditzaten» eskatzen dute.

Bestetik, saharar errefuxiatuen kanpamentuetan eta Mendebaldeko Saharako lurralde liberatuaren «giza garapenerako proiektu desberdinak burutzen jarraitzeko erabateko determinazioa» adierazi dute.

Era berean, Tolosaldea Sahararekin eta Maiatzak 20 elkarteek, Espainiar Estatuko agintariek, aurretik aipatutako gertakariak, «Mendebaldeko Saharako gatazkan, Marokoko erregimenaren tesiekin bat egiteko baliatu izana» salatzen dute. Eta, onartezintzat jotzen dute errefuxiatu kanpamentuetan segurtasuna bermatzeko zailtasunak daudela esatea, «kooperanteen ebakuzioa iradoki eta gomendatzeko». Beraien esanetan, «Marokoko erregimenaren desioei jarraituz, kooperanteen lana boikoteatzen saiatzeak gutxieneko giza eskubideekiko begirune ezaren» adierazgarri nabarmena dira.

Azkenik, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesua, «Nazio Batuen Erakundeak bere garaian ebazitako Autodeterminazioaren erreferendumaren bitartez amaitzea» ere eskatzen dute.



Eskolari Euskal Herria ikastetxea izena jarri diote. HITZA

Gregorio Eizagirre • Tolosaldea Sahararekin elkarteko kidea

## «Ohore bat da guretzat eskola martxan ikustea»

### M.U.

Gregorio Eizagirre, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kidea, urriaren 18tik 29ra bitarte Saharara izan zen.

**Zer helbururekin joan zinen Saharara?**

Bi heburu genituen. Batetik, *Oporrak Bakean* proiektuarekin etorritako bost ume etxera eramate, hemen geratu behar izan baitzuten gaixo zeudelako. Eta, bestea, han eraikitzen ari garen eskolaren obra zer moduz zihuan ikustea.

**Zer moduz dago eskolaren proiektua?**

Urriaren 23an, bahiketaren egunean, han mugitzeko behar diren baimen batzuen bila joan nintzen Rabunera, bahiketa gertatu zen lekura. Eskola kanpamentutik lau egunera dago, eta gainera lurralde liberatuaren dago, eta ez dago koberturarik. Baimena eskatzerakoan, bahiketaren berri eman zidaten. Ministeriokoak esan zidan ez zegoela arriskurik, behin ere baino arrisku gutxiago zegoela, baina etxeok ez joateko esan zidaten; azkenik, zentzuzkoena ez joatea zela pentsatu nuen, etxeok lau egunetan berririk izan gabe egon beharko zutelako.

**Azkenean eskolara joaterik izan al zenuen?**

Ni orduan nire etxera itzuli nintzen, Smarara. Hangoek hurrengo egunerako konponduko zela uste zuten, eta hala bazen eskola ikustera joango ginela esan zidaten, baina egoera ez zen argitu eta ez ginen joan.

**Emaitzarekin gustura zaudete?**

Bai, eskola jada martxan dago. Guk emandako diruarekin obra erdia egin dute, eta beste erdia dirua lortzen denean egingo dugu. Guretzat ohore bat da. Hurrengo bidaian ikurrina bat eta plakatxo bat emateko eskatu digute. Eskolak Euskal Herria izena du.

Erreusketak zerbait bermatzen ditu. Erreusketak, lebe proposatzen.

P-5008

PEUGEOT

## PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Tolosako Uzturre asistentzia zentroak eguneko zentro eta egoitza bezala funtzionatzen du. I. GARCIA

# Menpekotasuna dutenentzat, eskubideak

Menpekotasun Legeak dependentzia dutenei eskubideak sortu dizkiela dio Agurtzane Lopetegi gizarte laguntzaileak

Legea 2007an jarri zen martxan; besteak beste, hiru maila zehazten ditu

**Imanol Garcia**

Gizarte zerbitzuetan aldaketa handia suposatu du Menpekotasun Legeak. Agurtzane Lopetegi, Alegialdeko zenbait herritako gizarte laguntzaileak, dioenez, «beharrezkoa zen legea. Lege honek menpekotasuna duen pertsonari eskubideak sortu dizkio».

Horrez gain, Lopetegi laguntzailearen egoerak izan duen «aurrerapausoa» nabarmendu du: «Orokorrean zaintzaileak emakumeak izaten dira. Ugari dira ekonomia ezkutuan lan egiten dutenak. Ez dut esaten legearekin egoera konponduko denik, baina gutxienez zaintzaileari kotizazio batzuk onartzen zaizkio. Beraz, nolabait, bere lana errekonozitua izan da». Zaintzailearen egoeran, gauza asko daudela hobetzeko dio Lopetegi. «Esaterako, gizonetzako zaintzaile lanetan aritzea ere bultzatu egin behar da».

Menpekotasun Legea 2006ko abenduaren onartu zuen Espainiako Gobernuak, eta 2007an jarri zen martxan. Esan bezala, depen-

na eta dena egin behar zaiona edo eginkizun batzuk egiteko gai dena», dio Lopetegi. «Biek beste baten beharra dute, baina maila desberdinetan», gaineratu du.

## Foru Aldundiaren eskumena

Balorazioa egiterakoan, pertsona batek duen dependentzia maila neurtzen da. «Egunerokotasunean pertsona bat zer egiteko gauza den neurtzen da: ibiltzeko, janzteko, jateko, erabakiak hartzeko, erosketak egiteko, telefonoa hartzeko, ...».

Behin balorazioa egiten denean, legeak pertsonari eskubide batzuk ematen dizkio. Foru Aldundiarena da baloratzeko esku-

mena. Gizarte zerbitzuetakoek herritarren eskaera jaso eta Foru Aldundira bidaltzen dute. Horrek baloratu eta ebazpena herritarri bidaltzen dio. «Herritarra guregana etortzen da, ebazpenaren

## Helburuetako bat pertsonaren autonomia bultzatzea da

berri jakitera», dio Lopetegi. «Errealitate eta kasu guztiak ezberdinak dira, eta menpekotasunaren arabera, berak duen ezintasunaren arabera, baliabide bat

edo beste bat aukeratzen du interesatuak edo familiak». Helburua da «menpekotasuna dutenei laguntza ematea eta pertsonaren autonomia bultzatzea, ahalik eta autonomia handiena izatea», zehaztu du Lopetegi.

## Laguntza ekonomikoak

Legeak sortu duen beste berritasuna laguntza ekonomikoak dira. «Laguntza hauen helburua da bakoitzaren etxean edota eremuan ahalik eta denbora gehien mantentzea», esan du Lopetegi. Mailaren arabera, laguntza behar duen pertsonak diru laguntza jasotzen du eta gero diru hori ematen dio bera zaintzen ari den senide bati. «Horri laguntza ez profesionala deitzen zaio. Dirua ematen da, eta zaintzaile bezala familiako norbait gelditzen da». Beste aukera bat da laguntza pertsonala eskaintzeko langile ez familiarra kontratatzea.

Menpekotasuna dutenek jasotzen dituzten baliabide bakoitzak bere baldintzak ditu. «Estatuan bost urtez egon beharra dago gutxienez», dio Lopetegi. «Gipuzkoan, egoitza batean sartzeko, gutxienez lurraldean azken bi urteak egon behar da. Egoitza batean plaza eskatu gero, eta lekuri ez badago, prestazio ekonomiko bat eska daiteke egoitza pribatu batean egoteko». Egoitza batean sartzeko bigarren edo hirugarren mailako dependentzia izan behar dela argitu du Lopetegi.

dentzia dutenei eskubide batzuk sortzen dizkio. Eskubide horiek sortzeko, baloratu egin behar da menpekotasuna. Legea sortu zenetik, beraz, lana asko ugartu zaie gizarte zerbitzuei.

Menpekotasunari dagokionez, hiru maila zehaztu dituzte. «Ez da berdina oheratuta dagoen perso-

## Baliabide ugari daude beharra dutenen eskura

➔ Hainbat baliabide daude menpekotasuna dutenentzat. Horieta bat teleasistentzia da. «Lepoko moduko bat izaten da. Adineko pertsona bakarrik tokatuz gero, erori egiten bada eta ezin bada altxatu, lepokoa zapaldu eta larrialdi zerbitzuekin harremanetan jartzen dira edota berak zehaztu dituen pertsonekin.

Etkez etxeko laguntzan, astean zehar egun jakin batzuetan joaten da langile bat menpekotasuna duenaren etxera eta ordu pare batez laguntzen dio.

Laguntza teknikoak hainbat motatakoa izan daitezke: ohe artikulatua jartzea; garabia, mobilizatzeko; irisgarritasuna bermatzekoak, aulki gurgildun bereziak, ... «Jendeak asko eskatzen ditu, jendearen joera etxean mantentzea baita», esan du Lopetegi.

Eguneko zentroari dagokionez, menpekotasuna duen pertsona 10:00etatik 18:00etara joaten da zentro batera, «bere ingurunearekin harremana mantenduz», dio Lopetegi. «Dependentzia dutenentzat eguneko zentroa da haurrentzako haurtzaindegiak bezala».

Egoitzak menpekotasun handiena dutenentzat dira. «Horra joaten dira bere etxean ezin dutenengan jarraitu. Horrez gain, pertsona batzuk babes-tuago sentitzen dira egoitza batean, bere etxean baino», azaldu du Lopetegi.

«Kasu guztiak ez dira berdinak, eta beti interesatuak edota familiak zein baliabide egokitzen zaion erabakitzen dute», gaineratu du Lopetegi. «Gure funtzioa da informatzea, baloratzea eta orientatzea. Eta ondoren, erabakitako baliabide hori martxan jartzea».

# Fernandez eta Martinez munduko nabigatzaile onenak

Hirugarrenez izendatu ostean eskuratu dute saria; Volvo Ocean Race probako lehen postuan daude

**Erredakzioa** Ibarra

Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinez hondarribitarrak jaso dute munduko nabigatzaile onenaren aurtengo saria. Herenegun gauean eman zuen Nazioarteko Bela Federazioak irabazle berri Puerto Rico eginiko ekitaldian. Fernandez eta Martinez ez ziren bertan, une honetan Volvo Ocean Race probako lehen etaparen bete-betean baitaude.

Aurtengoa munduko nabigatzaile onenaren titulua jasotzeko hirugarren izendapena zuten. Eta hirugarrenean posible izan da. Beraz, euren lorpen sortari — bi olinpiar domina, hiru munduko titulu, beste hainbeste Europa-koak eta ozeano-belan hainbat arraskata —, azken hau batu behar zaio.

Bi euskal nabigatzaileak Ben Ainslie britainiarra, Lorenzo Bressani italiarra, Rob Douglas estatu batuarra eta Nathan Outteridge australiarraren aurretik geratu dira.

## Ospakizuna ontzian

Iragan irailearen 26an izan zuen ibartarrak izendapenaren berri, eta **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO**

**HITZARI** eginiko adierazpenetan, «oso pozik» zegoela zioen. Izendatze hutsa saria dela eurentzat onartu zuen, eta oso zail ikusten zuela saria beraiei ematea. Dena den, «itxaropentsu» zegoen.

Agian sentsazio bereziren bat bazuen Fernandezek azken izendapen honekin, azkenean eurentzat izan baita. Sariaren berri izan zuenean, «oso gustura» dagoela esan zuen, eta sariak merezi duen bezala ospatuko duela taldekideekin azaldu zuen, hori bai, Atlantikoan, eta euren Telefonica ontzian.

Une honetan, Portugalgo Madeira irlen iparraldean daude, Volvo Ocean Race probako lehen postuan, Franck Cammas frantziarrari aurea hartu ostean.



Xabi Fernandez, irailean egin zuen atsedendaldian, Ibarra. HITZA

**Urko Arozena** • Musika irakaslea

## «Entrenamendu mentalaren teknikak erabilia gizakia askoz hobeto bizi liteke»

**Iñigo Terradillos** Leizta

Kontzertuak, hitzaldiak, oposaketak edota kirol probak bezalako jendaurreko saioak prestatzeko baliabide «eraginkorrak» eskainiko ditu Urko Arozena musika irakasle oiartzuarrek datozen bi larunbatetan — etzi euskaraz, eta hilaren 19an gaztelaniaz — Leitzan. Entrenamendu mentala ikastaroko saioak zinean izango dira, 09:00etatik 13:00etara, eta parte hartzeko 100 euro ordaindu behar da Euskadiko Kutzaren kontu korrontean (3035 0118 88 11 81019663) izen-abizenak jarritz, Leitzako ikastaroa kontzeptuarekin.

### Zer da entrenamendu mentala?

Gure berezko baliabideak erabiltzen ikasteko teknika bilduma bat da. Oso eraginkorrak dira, eta erabiltzen hasi orduko nabaritzen da aldaketa.

### Non eta nola erabiltzen da?

Goi mailako kirolariak, esaterako, asko erabiltzen dute. Kirol psikologoa izaten dute ia guztiak, eta teknika hau praktikatzen dute. Kirolariak lesio bat duen kasuan, adibidez, ezin badu entrenatu nola egiten du maila mantentzeko? Ba, oso erraz. Begiak itxen ditu, eta bere barnean teknika hauek erabiliz entrenatzen jarraitzen du. Emaitzak harrigarriak dira. Ohiko teknika izaten da, kirolariak entrenamendu fisikoaz gain, entrenamendu mentala egiten dute, hau da, euren kirola egiten ari direla imajinatzen dute. Horrela, garunak kirola egiten ari dela uste du, ez du bereizten benetan ari den edo pentsamenduan ari den.

### Kirolaz gain, beste esparruetan ere ohikoa al da?

Bai. Demagun, pertsona bat oposaketa batera aurkezten dela. Ur-



HITZA

duri, beldurtuta doa. Nola konpondu daiteke egoera hau? Begiak itxiko ditu, eta bere barruan teknika hauek erabilia, imajinatu behar du oso ongi egongo dela. Nola bait bere burua konbentzitu behar du horretara. Teknikak ongi erabiltzen baditu, lehen hain urduri jartzen zuen eguna iriste-

an, hainbeste gozatzeko du negar ere egingo duela.

### Beraz, pertsona guztiak erabili behar harko genituzko teknika hauek.

Pena bat da, baina ez da behar adina erabiltzen. Gizakia bizi liteke askoz hobeto, eta bere buruarekiko ziurtasun handiagoz teknika hauek erabilia.

### Jendearen aurreko saioei beldurra dien guztiarentzat dago konponbidea orduan?

Kontua da, beldur horiek guk sortzen ditugula. Beraz, posible da ez sortzea. Beldur hori bizi izan dugun esperientzia baten oroitzapenetik dator kigu. Guk egin behar duguna da, aurreko esperientzia hori zoragarri bezala irudikatu, gure buruak hori sinetsi behar du, eta horrela, esperientzia horretan gozatu, disfrutatu egingo dugu. Teknikak hauek behar bezala erabilia, berehalako ondorioak nabarituko dira.

## Hamabost egunez A-15 autobiderra doan bidegurutzera itxi egingo dute

Uholdeek eragindako kalteak konpondu asmo dituzte; bitartean Areso eta Leitzako errepidea erabili daiteke

**Erredakzioa** Berastegi

Berastegiko Udaletik jakinarazi dutenez, A-15 autobiderra doan bidegurutzera itxita egongo da datozen hamabost egunetan. Hain zuzen ere, atzo gaueko hamarretan itxi zuten aipaturiko bidea. Hamabost eguneko epean iragan asteburuko uholdeek eragindako kalteak konpontzeko asmoa dute.

Udal ordezkariak azaldu dute Andoainera konantzaren autobidea erabili nahi dutenek Areso eta Leitzako bidegurutzera jo behar dutela, eta han bertan hartu bira emanda.

**Hilberriak**

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### JOSE IMAZ BEGIRISITAIN

Atzo hil zen 62 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

*Lore bat bezala joan zera udazkena heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean*

### Koinatuak eta ilobak

Hileta-elizkizuna, GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIRETAN izango da, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan

**Helbidea:** Zumalakarregi, 3.

**ORDIZIAN**, 2011ko azaroaren 10ean

**Oharra:** Gorputza Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da 13:30ak arte.



### INES IMAZ KATARAIN

*Zuri bertso hau kantatzen dizut, gaur udazken egunez entzun ezazu amona maite, pozez eta atseginez ez zaitugula inoiz ahaztuko, zu ederrena zarenez gurekin txintxo izatearren, eskerrik asko bihotzez*

Bilobak: Ion eta Loli Etxeberria, Eneko eta Itziar Irazoki, Andoni eta Agurtzane Irastorza, Asier eta Nora Medina, Mikel, Julen eta Itziar Ormaetxea, Jaione eta Iban Fernandez, Nerea eta Jon Egia, Maddi eta Oihane. Bilobak: Unax eta Larraitx, Irati, Iosu eta Elene.

Hileta-elizkizuna, GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIRETAN izango da, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan

**SEGURAN**, 2011ko azaroaren 10ean



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Info 7 irratiak informazioa eta analisia ditu jomugan

Programazio berria abiarazi du bost urte bete dituen irratiak; tolosaldean FMko 97,7 an entzun daiteke

**Rebeka Calvo**

Info 7 irratiak hasi du jada programazio berria. Tolosaldean FMko 97,7an entzun daiteke, eta Villabonako zenbait tokitan Donostia-ko frekuentzia ere hartzen du, hau da, 99,2.

Programazio berria informazioa eta analisia dituzte oinarri, eta goizeko tartea indartu dute. Horretarako saio berriak dituzte entzungai: *Hitzen Lihoa*, *Kalegorrian*, *Egunari Begi-Kolpea*, *Joko Bai* eta *Sartudalapurra*.

*Kalegorrian* 07:30etik 09:00era entzun daiteke, eta Jon Mikel Fernandez kazetariak gidatzen du. Astelehenetik ostiralera 30 minutuko albistegi nagusiaren ondok, elkarrizketa politikoari eta analisiari egiten diote tarte, 08:10ak inguruan. Asteartean gainera, mahai inguru politikoa egiten dute eta mahaiaren bueltan Mariano Ferrer, Fermin Munariz, Martxelo Otamendi, eta Joseba Santamaria kazetariak izaten dira. Ipar Euskal Herriko

mahai inguruarekin ere jarraitzen dute ikasurte honetan. Ostiralean izaten da honako kazetariekin: Maite Ubiria, Aitor Renteria, eta Allande Boutin.

*Egunari Begi Kolpea* saioan, 09:30etik 10:00etara, egunak ekarriko duenari begira jartzen dira. *Eta Hitzen Lihoa* hartzen du lekukoa gero, 10:00etatik 12:00etara. Doltza Barandiaranek gidatzen du saioa eta astelehenetik ostiralera besteak beste, gizarite gaiak eta kultur munduko jorrratzen dituzte. Gipuzkoako Ber-

tsolari Txapelketak eta idazle eskolako ikasleek, esaterako, astean behin izaten dute tartea. Kiro-laren «beste aurpegia» ere izaten dute hizpide, teknologia berriekin batera.

Era berean, astelehenetan, 14:00etatik 15:00etara, *Joko Bai* kirol saioa gidatzen du Agin Rezolak.

*Sartudalapurra* bere aldetik, kultur saioa da, eta astelehenetik ostiralera 19:30etik 20:00etara entzun daiteke. Ion Olanok gidatzen du.



Info 7 irratiak esatariak. HITZA

### Farmaziak

**GAUR**

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 67 06 48.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.  
■ **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaya kalea.

Telefonoa: 112

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

### Gaurko programazioa

#### 28 KANALA

■ **08:30.** HBI. ■ **09:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00-11:00.** Abesbatza lehiaketa ■ **11:00.** Ikusmira. ■ **11:30.** Tolosaldea Gaur. ■ **12:00.** Erosi eta ikasi. ■ **12:30.** Berbetan. ■ **13:15.** Foorfur. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00-14:30.** Abesbatza Lehiaketa. ■ **15:00.** Ikusmira. ■ **17:15.** Amaigabeko istorioa. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Erosi eta ikasi. ■ **16:30.** Berbetan. ■ **17:15.** Foorfur. ■ **18:00.** Abesbatza lehiaketa. ■ **18:30.** Gipuzkoa kultura. ■ **19:00.** Bizitzegia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** HBI.

#### TXOLARRE IRRATIA (107,6)

■ **11:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. Besteak beste, Gaindizten elkarteak antolatutako film laburren jaialdiaz hitz egingo dute. ■ **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina. Besteak beste, Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen elkarteko kidearekin hitz egingo dute, eta Tolosako kontsumo taldeen inguruko erreportajea eskainiko dute. ■ **13:00.** Lehiaketa eta disko eskainiak. ■ **13:30.** Info 7 irrati albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia. ■ **16:00.** Gazte Zaparrada (Irulegi irrati). ■ **17:00.** Kabitik plazara. ■ **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina. ■ **20:00.** Info 7 irrati albistegia. ■ **21:00.** Berbenir (Txapa irrati).

### Agenda

#### DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Bonbereneak antolatutako Literatura & Art astearren barruan gaur, 19:00etatik aurrera ilunabar literarioa.  
■ **Tolosa.** Euskadiko Frisoi Elkarteak antolatuta Bittor Rodriguez EHUko Nutrizio irakaslearen *Esnea, elikagai osoa* hitzaldia gaur, 19:00etan batzar aretoan.  
■ **Amezketak.** Kultur astearren barruan gaur, 20:30ean Dolpon egin duten proiektua Marronen eskutik, kultur etxean.  
■ **Amasa.** San Martin jaiaren barruan, gaur: 06:00etan gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan; 14:30ean gazteen bazkaria Uxo-Toki elkarteak; 16:30ean sokadantza eta aurrekua eta ondoren, trititilariaren erromeria; eta bukatzeko gazteen afaria Iturri-Goxo jatetxean.  
■ **Berastegi.** Kultur astearren barruan gaur, 21:00etan Joseba Barandiaranen hitzaldia.  
■ **Alegia.** Azaroaren 19an Loatzto musika eskolako Xexili Eguna ospatuko du. Urtero bezala egun osoko jai antolatu dute eta bazkarirako txartelak salgai daude gaur eta bihar Anoeta, Alegia, Altzo, Aduna, Irura, Ibarra, Villabona eta Zizurkilgo udaletxe edo kultur etxeetan.  
■ **Tolosa.** 1977an jaiotako bazkaria antolatu dute. Joan nahi dutenek azaroak 16rako 60 euro sartu beharko dute Kutxan (2101 004318 0012906772). Informazio gehiagorako idatzi tolosa1977@gmail.com helbidera.

**Bertako informazioari, bertako produktuak**

Egin HITZAren harpidedun abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

**MAHALA** ekoizlearen produktu sorta hau **OPARI**

Harremanetarako: 902-82 02 01 - harpidetza@hitza.info